


MAITE EZ ZUEN EZKONGAIA



Bazen behin Sarah izeneko neska bat. 15 urte zituen, azala eta ilea beltza eta begiak berdeak zituen, berak bere amak bezain begi politak eta berdeak zituen.

Egun batean, Sarah esnatu zenean bere amarengana joan eta amak sorpresa bat eman zion, amarentzat ona baina Sarahrentzat ez.

-Sarah esnatu zara! Sorpresa bat daukat zuretzat! Azkenean aurkitu dugu norbait zurekin ezkondu nahi duena, eta asko kostatu zaigu.

-Ze!! Ni ez naiz ezkonduko! Nik nire ametsak daukat eta ez naiz hain goiz inorekin ezkonduko, nik ikasi nahi dut eta medikua izan. Gero, egitan maintemintzen naizenean ezkonduko naiz, baina oraindik ez.

-Badakizu ez daukagula dirurik zuk ikasteko, eta gainera zure senarra izango dena oso jatorra da eta Mohamed izena du. Mohameden gauza txar bakarra da 50 urte dituela eta 2 emazte.

Sarah korrika berriro bere gelan sartu zen.

Egun batzuk pasatzean Sarahk bere amaren soinekoa probatu zuen, hurrengo egunean Mohamedekin ezkondu behar zuelako.

Ezkontzaren eguna iritsi zen, han pertsona gutxi zeuden: Sarah, Sarahren gurasoak, Mohamed, Mohameden beste emazteak eta Aladin. Mohamedek ez zituen hainbeste emazte, Sarah bere hirugarren emaztea zen eta.

-Kaixo Sarah- esan zion Mohameden zerbitzariak- Nik Aladin dut izena, eta zerbait behar baduzu niri eskatu, lotsarik gabe.


Aladinek azala eta begiak ilunak zituen, eta bibotea zuen. Oso jatorra zen, gainera bakarra izan zen Sarahrengana hurbildu zena.


Mohamedek ez zion Sarahri hitz egin, bakarrik bere aitari. Sarahk Mohamed berarekin diruagatik ezkondu zela pentsatzen zuen, eta arrazoia zuen. Mohamed^{ek} ez zuen inoiz Sarah ikusi eta ezkontzan bakarrik " Bai " esan zuen, ezkondu ziren momentuan.

-Ama, nik ez dut hemen bizi nahi, oso handia da eta bakar-bakarrik nago.-esan zion Sarahk amari.

Lasai, hemen oso ondo pasako duzu. Eta kanpoan igerileku bat dago zu ez aspertzeko. Gainera, bakarrik sentitzen zarenean Aladin egongo da.

Egun horretan Sarahren familia, Mohameden etxean geratu zen lotan. Baina hurrengo egunean joan egin ziren.





Ezkontzaren egunetik, denbora dezente igaro zen. Sarah eta Aladin lagunak egin ziren eta Aladinek denetarik erakutsi zion: ze belar motak sendatzen duten, idazten, matematika eta hizkuntza berri batzuk...

Egun batzuk geroago Sarahren urtebetetzea izan zen 16 urte beteko zituen eta bere gurasoak ikusiko zituen.


Sarahren gurasoak egun-pasa joan ziren eta koilare batzuk oparitu zizkieten. Gurasoak joan zirenean Aladinek liburu bat oparitu zion, abenturazko liburu bat "Munduari buelta 80 egunetan". Mohamedek esan zion:

-Nire oparia gauean izango duzu nire gelan.

Sarah oso pozik zegoen, jakin nahi zuen zer zen.

Gaua iristean, Sarah Mohameden gelara joan zen, baina Sarahk ez zekien bere oparia ume bat zela, berak izango zuen ume bat.

Sarahk esan zion ezetz ez zuela nahi, baina Mohamedek ez zion kasurik egin. Gau hori, gaurik okerrena izan zen Sarahrentzat.



Egunak pasatzean Sarahren tripa geroz eta handiagoa egiten zen. Aladin Sarah animatzen saiätzen zen baina Sarah beti triste zegoen, batzutan ez zuen jan nahi.

9 hilabete pasatzean Sarahk ume bat izan zuen, neska izan zen ~~umea~~. Baina Mohamedek mutil bat nahi zuen.

-Ze!!Neska da!!Nik mutil bat behar nuen.-esan zuen Mohamedek.-Neska bat ez dut ezertarako behar. Hil dezakezue.-jarraitu zuen esaten.

-Ez!Nik zainduko dut!Baina ez hil umea, berak ez dizu ezer egin.-esan zuen Sarahk.

-Bale, utziko dizut zaintzen,baina nik esaten dizud~~an~~lekuan. Zu ezingo zara kexatu.

Mohamedek umea etxean uzten utzi zion. Baina umeak 3 urte betetzen zituenean, eta sarah 19, sorpresa bat egongo zen. Sarah ez zen Mohamed~~ez~~ fidatzen. Mohamed deabrua baino gaiztoagoa zen.

3 urte pasa ziren eta Maikak 3 urte bete zituen, Sarahren umeak. Mohamed Sarah eta Maika gela batean giltzapean sartu zituen. Aladinek janaria eramaten zien eta astean gauza bakarra eskatu zezaketen.

Gelaren ezkerrean bi ohe zeuden, lurra hutsik zegoen eta ~~ezkerrean~~^{eskubian} tximini bat, gelari beroa emateko. Paretan leiho bakarra eta ezin zen ireki. Eta sapaian lanpara bat, gelari argia emateko.

Sarahk klarionak eskatzen zizkion Mohamedi, koloretako klarionak. Eta horrela Maikari margotzen, kontatzen, idazten eta gauzak nolakoak ziren erakusteko. Azkenean egun bat iritsi zen

kolore guztietako klarionak zituna, kolore guztiak txuria izan ezik.

2 hilabete pasa ziren eta Sarah ~~h~~ Mohamedi kolore txuria eskatu zion. Kolore zuria lehen aldiz Maikak erabili zuen, etxe bat margotzeko eta Sarah konturatu zenean etxea egitazko jostailu bat zen, eta pentsatu zuen ate bat margotzen bazion atera ahal izango zirela.



Sarahk ez zuen segituan atea margotu, Aladin agurtu nahi zuelako.

Hurrengo egunean Aladinek gosaria eramán zienean, agurraren ordua iritsi zen.

-Aladin! Aurkitu dut Maika eta ni hemendik ateratzeko modua!

-Baina nora joango zarete.

-Nahi dugun tokira, ate magiko bat margotu dut, hemendik aterako gaituena.

-Ba, ondo ibili.

-Nahi baduzu gurekin etorri zaitezke.

-Ez, lasai. Nire lekua hau da.

-Bale!

Horrela agurtu ziren Aladin eta Sarah. Arratsalde ^{hastan} ~~horretan~~ joan ziren Sarah eta Maika gela itsusi horretatik. Ingalaterrara joan ziren eta han Sarah ikasten hasi zen eta Maika ikastolara joaten. Sarah ez zen inorekin ezkondu, baina norbaitekin ezkondu balitz, lehenengo senarra baino hobea izango zatekeen.

Sarah oso ondo bizi izan zen hortik aurrera.